

HERRIKO KONTUAK: GAS NATURAL / FAIA: J. F. GILISASTI
IRITZIA: ANDRES GAR MENDIA

KARKARA



Franco gure artean

Izan zaitez KARKARAren laguntzaile!

Aldizkaria kaleratzen segitu ahal izateko, KARKARAri urtean 5.000 pta. emateko prest dauden lagunak behar ditugu. KARKARAren laguntzaile izan nahi baduzu, oso erraza da: paper hau (edo fotokopia, moztu beharrik ez duzu) zure datuekin bete eta utz ezazu KARKARAren buzoian (Udaletxe atzoko karkaran dago oraindik) edo bidal ezazu korreoz. Gu arduratuko gara gainontzekoaz.


Karkararen laguntzaile izan nahi dut

Izen-deiturak:

Heribidea:

Herria:..... Posta kodea:..... Telefonoa:.....

KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago **KARKARA**ri urteko 5.000 PTako laguntza emateko. Hauek dira nire kontu korronteko datuak:




Entitatea



Sukurtsala



KD



Kontu zenbakia

KARKARA ALDIZKARIA, Herriko plaza, 1 20810 ORIO Tel.: 943 83 15 27

FOTOFESTIVALA - GIGANTIKAKO KALEEN LEONAK - TEKNIKALDEAKA PATAKAKA M. MUSIKAZKOAK

TONAKA serba ditzala!

LERTXUNDI
Altzariak - Dekorazioa

Jose M. Genoba
060200001

Eusko Gudari 10, 20810 ORIO • Tel./Fax: 943 13 09 99

SANTOKO

83 12 61
ATA LERTXUNDI, 22

Liñaki Gorrate
Araga-aurrea
Eusko Gudari, M (atzak.)-3. Thoa: 943 13 46 07

C C I
SANTOKO LERTXUNDI

Asegurak

Akobe
Juan Albizu
elektrogailuak

CARFRA Markako
sukaldeko
altzariak!
Abeslari kalea, 6
Tfnoa: 943 83 12 49

LURDES
SUKALDEKO
ALTZARIAK

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

* Berotako babarrun elha haragiak
* Elkarreko sukaldetegiak elha
* Haurrentzako menu berezia elha
jolastaldiak

JATETXEA
KANUA
RESTAURANTE

Gezategi Enparantza, 11 - AIA
Tlf. 943 83 41 22

Itsasondo
JATETXEA
RESTAURANTE

Eguneroko menua - Bazkari bereziak - Bataio, komunicoak...
Kaia kalea, 7 • Tfno. 943 13 11 79 • 20810 ORIO (Gipuzkoa)

KARKARA

Orio eta Alako aldizkaria

Kultur etxea
20810 ORIO
943 83 15 27
karkara@topagunea.com

LEGE GORDAILUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 2.600 ale

EDITOREA

KARKARA TALDEA
kultur elkartea

ZUZENDARIA

Ana G. de Txabarri

ERREDAKCIO BURUAK

Pat Cowie eta
Rikardo Uzkudun

ERREDAKCIO TALDEA

Miren Etxeberria,
Jakes Goikoetxea, Ana Iturain,
Iñaki Iturain, Nere Manterola,
Ainara Peña eta
Javier Zabaleta

AIAKO ERREDAKCIOA

Eli Laso

PUBLICITATEA

Mari Jose Alkain

TESTUEN ZUZENMENA

Iñaki Iturain eta
Javier Zabaleta

ALE HONETAKO LAGUNTZALEAK

Andres Garmendia, Antxon
Gomez eta Nikolas Zendoia

ARGAZKien DIGITALIZACIOA

Ana G. de Txabarri

DISEINUA

AZMA Golo Arana

BARRUKOA Javier Zabaleta

PUBLICITATEA Iñigo Gaztañazpi

AZKEN ORRIALDENO MARRAZKIA

Jorge Oteiza

BANATZAILEAK

Miguel Angel Sanz (Orion)
Iker Zuloaga (Aian)

IMPRESIONES

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARA ez du bere gain hartzen
aldizkarrian: adierazitako esanen
edota intzien erantzukizunak.

KARKARA argitaratutako berreman
daiteke, osorik edo zatika,
baldin eta iturria alpatzen bada.

BERTSO JARRIAK

Patxi zahar hari

1

Irurogeita amabosteko
azaroko funtziean,
gizon itsusi-itsusi batek
goizeko emisioan:
«Mis españoles, Franco ha muerto»
zion telebisioan,
lore bat galdu balitz bezela
España nazioan.

3

Disekagaillu onenarekin
ziur zutela lgurtzi,
españatarra agur ta agur
ez zuten bera la etsi.
Egia esan, nik elizetan
sekula ez det ikusi
an orrenbeste saludo firme
ta an aintzat errebentzi.

2

Lau egunean beste gauzik ez
telebisio pantailan,
ez dakit nungo saloian edo
ez dakit nungo kapilan.
Ango kandela, ango zuzia
jendea zetorren filan,
buru parean ixilik pasa
ta alboko gelan bullan.

4

Pipermin audi bat galdu zuen
españatarren baratzak,
baña zupaka darabilzkite
artaz egindako saltzak.
Batzuk loreak jarri zituzten
besteak berriz arantzak
óraindik bizi ote dan ere
baditut nere zalantzak.

NIKOLAS ZENDOIA

PUBLICITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	1.500 PTA
Bi modulu	3.000 PTA
Hiru modulu	4.500 PTA
Lau modulu	6.000 PTA
Sei modulu	9.000 PTA
Zortzi modulu	12.000 PTA
Oriolde endla	15.000 PTA
Oriolde osoa	22.500 PTA

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	2.000 PTA
Bi modulu	4.000 PTA
Hiru modulu	6.000 PTA
Lau modulu	8.000 PTA
Sei modulu	12.000 PTA
Zortzi modulu	16.000 PTA
Oriolde endla	20.000 PTA
Oriolde osoa	35.000 PTA

Irakurria hamabosteko edo hilero jartzen dutenei (bi aletik behin) % 10eko deskontua egindo zaie.

Publicitates kontrataztzeko, hitz egin Mari Jose Alkainekin (656 75 04 89 edo 943 13 41 46).



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Alako Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Kanposantuko lapurak

Santu Gaztien eguna pasa eta gero, kanposantura joan nintzen eta, bertan, konturatu nintzen nik eraman nuen lore-zentroa ez zegoela. Eta ez zait behin bakarrik gertatu: dagoeneko hirugarren aldia da gauza bera egiten didatela. Ez da lorea balio zuen prezioa importa zaidana, min ematen didana zera da: niire gurasoak eta familiaok hilda dauden tokia, era hauek bezalaxe beste guztiak, ez errespetatzea. Eta lapur horri zera esan nahi niokerik: kalte egiteko nahikoak esku zikin badagoela eta, mesedez, lapurtzeko erabili beharrean probetxuzko gauzaren bat egiteko erabiltzeko. Esaterako, bere etxeko lorea zain ditzala eta besteenak, eta batez ere hildakoei maitasun osoz eramandakoak, bakean uzteko.

Besterik gabe, mila esker.

ARANTXA LANBERRI IRIBAR

Zozketa futbol taldearen alde

Guk ez daukagu Rivaldorik saltzeko, ezta telebistako emanaldirik ere; publizitate pixka bat dugu, herriko komertzio batzuei esker, eta diru laguntza piska bat, erakunde eta empresa batzuei esker. Bainan, hala ere, ez zaigu iristen; larri gabiltza aurrekontuak horobiltzeko, alegatu ezinik beti. Eta bestelako bideak jorratu behar ditugu, nahitaez. Orain zozketa bat eratu dugu; saria: gabon-saski eder bat, telebista, bizikleta, Errealaren jantziak eta jakia. *El Niño* izeneko loteriaren zenbakia sarituak erabakiko du, Errege bezperan, 2001eko urtarilaren 5ean. Berrehun pezetaren truke, saski hori eskuratu ahal izateko, bi zenbakia dituzue, egutegi politikoa batean. Eta, batez ere, futbol taldeari laguntzeko aukera.

Oriotorrok, zuek duzue hitza, futbolzaleok eta, futbolzale izan gabe, herriko gazteek kirol egiteko aukera izan dezaten nahi duzu en. Zain gaituzue; txartelak jokalari eta direktibako guztiok dantzagu.

MAKATZA (FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA)

Gezurrik ez (II)

Azken KARKARAñ EAJk Jose Migel Leundari buruz egin zuen gutunaren aurrean, Eusko Alkartasunak argi adierazi nahi du:

—Agintaldi honetarako alkatea aukeratu zen plenoan EAko zinegotziak abstenitu egin ziren eta ez



gutunetarako

OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAñ buzoian utz daitezke (udaletxe atzeko ezkaratzear), edo gure lokalean entregatu (kultur etxearen). Posta elektronikozer ebidai daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARAñ ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAñ bere egiten du eskutitzak labutzeko eskubidea.

EAJk oso onto ezagutzen ditu oposizioan gauden alderdion jarreraren arrazoiak. Bainan, berriro ere aiparuko ditugu: alkatearen azpijkoka, errespeturik eza eta elkar lanerako gaitasun eza.

Gure errespetu guztia dute EAJk ordezkatzen dituen ia 1.000 oriotarren botoek. Agintaldi honen hasieratik, irekitasuna eta ideia zein proposamen guztiak modu berdinean eztaba datur ahal izatea besterik ez dugu esku. Bainan EAJko udal taldeari hori guztia eskatzea gehiegizkoa da. Udaletxe honetan, beren asmoak bakarrik dira lehentasunezkoak eta, gehienetan, balio duten bakarrak, berek bakarrik daki zer den Oriorentzako onena, besteak sobera gaude. Hori da EAJko udal taldeak 1.402 boto emaileren ordezkaritza dugun sei zinegotziotz erakutsi digun errespetua.

Alkatearen jarrera guzti probokatzailea da, mespretxua eta irain personalak dira bere tresna nagusial. Benetako esforzua da guretzat bere jokoan ez erortza, baina gure iparra herrian dago eta hortik jarraituko dugu. Tristeza iruditzen zaigu, bestalde, alkatearen jarreraren aurrean EAJko beste zinegotziengatik isiltasuna.

Kalte handia egin dute, adibide bat jartzearatik, Eusko Gudari kaleko berrikuntza proiektuaren adjudikazioari buruz EAJk, udaleko gehiengoaren borondatearen aurka, hartutako bi erabakiek, 'lege iruzurra' izan direnak; ondorioz, aurten hasteko zen obra hori urtebetetan atzeratuko da.

Berriro diogu, herriaren onerako, arazoa ahalik eta azkarren konpondu nahi dugula. Horretarako, EAJ bere itxikeriatik ateratzea ezinbestekoa da. Bainan ez dugu ahazten egoera tamalgarri honen arduraduna nor den. Guak ere lanean jarraitu nahi dugu; ez gara geldi egongo EAJren zaintz. Hiru alderdi oso ezberdinak izan arren, lan giro onean ari gara, ahaleginak merezi du eta denborak jarriko ditu gauzak bere lekuak.

ORIOKO EH, EA ETA PSE-EE

Eraztuna

Casasbaratas eta plaza bitarteko bidean urrezko eraztuna galdu dut. Sei tipokoa da eta MJ hizkiak ditu. Norbaitek aurkitu badu, Udaltzaingora eramatea edo 943 83 25 88 telefonora deitzea eskertuko moke.

M. J. EXPOSITO

ORIAKO EUSKO ALKARTASUNA

Etikarik eta argudiorik gabe

Etika eta argudiorik ez dagoenean ez da harritzeko, egiari tiko eginez, manipulazioaren bidea hartzea; besterik ez du egin EAJko udal taldeak azken KARKARAñ argitaratutako gutunean.

Lapur asko al dago gure inguruau?



ARANTXA ITURZAETA

45 urte

Ez hainbeste. Boladak izaten dira, baina askorik ez da izaten.

Janari dendetan ez dira normalean sartzen; balio handiko gauzak dauden tokietan sartzen dira gehiago, lapurtutako hobeto aprobatxatzeko.

Gurean behin ahalegin du ziren lapurtzen, baina ez zuten ezer lortu.



IBI ARRIZABALAGA

27 urte

Nik ez ditut ezagutzen. Txikitán Ipurta izan diot amari karteratik, eta ez hain txikitán ere hartu izan dut zerbaite eskatu gabe.

Hala ere, horretaz gain, denak kexatzen dira gasolina garestitzear, baina Repsolok kristoren irabaziak izan ditu, eta hori ez al da lapurreta? Diru asko lapurtzea ondo ikusia dago, baina huskeria bat lapurtzea, berriz, ez.



ARANTXA URANGA

36 urte

Boladak izaten dira. Askor daudenik ez zait iruditzen. Gañera, herri txikietan gutxiago izaten direla uste dut.

Urtebetean ez da ezer izaten, eta halako batean, host edo sei egunetan izaten dira lapurretak. Gure dendan ez da lapurrik sartu orain arte.



JON ATXEGA

24 urte

Ez dakit, baina baietz uste dut. Guk uste baino lapur gehiago dago hemen. Zainketa handiagoa egon beharko luke segurtasun indarren partetik. Behar den lekuak ez dira egoten.

Festetan, adibidez, kanpotik etortzen direnek herriko neskak lapurtzen dizkigute.

Orioko Ogia

DIPIL OKINDEGIA

Frontoi ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

Peluquería eta estética mixtoa

ZISS

- Tinte capilar y de uñas profesionales
- Belleza facial tinte permanente
- Azúcaral profesional
- Peeling
- Depilación

Izaña Bulevar, 9 Tfnoa: 943 83 31 70

OLIDEN HARATEGIA

Euske Gudari, 2

Tfnoa: 943 83 10 86

HERRI IKASTOLA

GURASO KOOPERATIBA

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

GOIZEKO -

Kafetegia

Gosariak
Pintxoak
Plater Kontinentauak
Ogitartekoak

Pasteleriko enkarguak
hartzen dira

Etxera eramatzeko,
esbata eahi dugana!!!

Aita Lekundea Kalea, 29
Tel: 943 83 28 55 ORTO



CAS NATURALA ORION. Martxan jarri den gas naturalaren 3.760 metro lazeruko sareak ia herri moat horretako da.

Gas naturala Orion

■ *Gasbidea berriko etxe gehienetara iritsiko da*

Orioko gas naturalaren sarea martxan jarri zuten Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako industriako sailburuak eta Juan Andres Diez de Uzurrun Euskal Autonomia Erkidegoko Gas-Naturaleko zuzendariak, azaroaren 2an egindako aurkezpenean.

JOSE MIGEL MAKAZAGA alkateak, Josu Jon Imaz industriako sailburuak eta Juan Andres Diez de Uzurrunek Orioko gas sarea ireki zuten ofizialki azaroaren 2an, kazetari askoren aurrean.

Alkateak ekitaldian adierazi zuen Gas Natural enpresak, gasbidea jartzen hasi zenean, erabilpen handiko tokietarri eramatea zuela helburu, eta

Orio, jakina, ez zen talde horretan sartzen. Hala ere, Orion arrazoi berezia zegoen gasa ekartzeko: kiroldegia, alegia. Kiroldegiko instalazioak martxan jaritzeko, nabarmena zen gas naturala egokiagoa izango zela gasolioa baino. Horrez gain, garbi zegoen gasa herri

txikiagoetara iristen zenean ere, Oriokn alde zaharra azken tokian izango zela, hor jende gutxi bizi baita. Horregatik, alkateak eskuera berezia egin zion Diez de Uzurruni, gasa alde zaharrera ere eramateko; jendea animatu dadin hor bizitzen jarraitzeko. Ondoren,

HARIARI TIRAKA

Olinpikoa

Pat Cowie

Plazan zeudenak zur eta lur geratu ziren aldapan zegoen antortxa olinpikoari sugarrik zerezko ikusita. Udalean dugun momentu nahasi honetan, gobernuko jauntxoak ekartzeak ez al zuen olinpiadiko kutsua, agintaldi honetan egin den lanari garrantzia emateko? Aurkezpenean herriko jende gutxi zegoen; baina kazetari guztiek jakinaren gainean geunden, berria zabaltzeko: hurrengo egunean, Euskaldunon Egunkarian, Diario Vascon, Garan eta Deian agertu zen herria. Kirolariekin egiten duten bezala, alkateek ere ahal dena egiten dute, aurrean dituxten zailtasunak gainditzeko eta duten puntuazioa igotzeko.

hitza eman zion GasNaturaleneko zuzendariari, egindako ahaleginak eskertuz.

Juan Andres Diez de Uzurrunek Orioko jendeari eskerak eman zizkion horrelako ongi etorri berou emateagatik. Adierazi zuenez, hasiera batean Zumaiatik Usurbila doan sarea ez zen Orioko kaskotik pasatzen, baina Natur-Gas enpresaren kapazitatea handitu egin da, eta lehen 5000 biztanletik gorako herrietara bakarrik iristeko asmoa zuten arren, orain mila biztanletik gorakoetara ere iristea date helburu. Beraz, Orion inbertitu dituzten 92 milioi pezetekin Orioko 1.000 etxetara iritsiko dira. Handa, Orioko etxebizitzentz hirutik lira. Horrez gain, Uzurrunek aipatu zuen, onarrizko inbertsioa baino lau aldiz gehiago, 400 bat milioi alegia, gastatuko dela instalazioaren inguruko lanak direla eta. Gauzak horrela, ekonomiaren sussperzaile ere bilurtuko da.

EKOLOGIA ETA KALITATEA

Josu Jon Imazek hitza hartu eta garrantzia eman zion gasaren alde ekologikoari, inguruari kalte gutxi egiten diolako, eta industriari egiten dion mesedeari, nahiko gastu txikiarekin lortzen delako. Horrez gain, esan zuen eguneroko bizi kalitatea hobetu egingo dela, Orioko 1000 etxe horietakoentzat. Petrólioaren menpe bizi garenez, dibertsifikazioa komeni da eta, urte gutxi barru, ia etxe guztietai eskaini nahi dute gas naturala. Eskerrak eman zizkien GasNaturalari eta Udalari helburu hauek lortzen laguntzeagatik eta, esandakoa egia dela ziurtatzeko, zeudenak elizako aldarera gonbidatu zituen. Orioko gasbidea martxan dagoela ikustera. Alkateak su eman zion jarritako antortxari eta esan zuen herria, dagoeneko, gasifikatutu dagoela.

Oteiza jaioterrira

JORGE Oteiza eskultorearen Oriora etorri zen azaroaren 4an, kultur etxeko erakusketa ikustera. Bere obrei buruzko komentario umoretsuak egin zituen.

Argazkilarizingururatu ta egin zen —haien artean Rene Burri, Frantziako argazkilari ospetsua—; eta kezkatuta: *non dago Orioko jendea?* Oteizak ez zuen herriarrekin egoteko aukerarik izan eta oriotarrokere ez berarekin egoteko. Kanpoko prentsari bakarrak abisatu zitzaien joateko.

Azken soldaduzka

AZAROAREN 8an izan zen soldaduzkarako azken zozketa. Mutil hauek sartu ziren zozketan: Mikel Agote, Imanol Agirre, Haritz Arrizabalaga, Joseba Carrero, Ander Zinkunegi, Alexander Korta, Iñigo Fernandez, Aitor Manterola, Miguel Angel Ruedas, Ramon Santamaria eta Iñigo Solabarrieta. Eta Aian, Mikel Lizaso.



SUSTO GALANTA. Deudako atea itxita, batua zerrailarrik gabe aurrkitu zuen Mirari Alberdik lanera joan zenca.

Lapurreta

LAPURRAK ALDE BATETIK bestera ibili ziren Orion azaroaren 3an, goizeko ordu txikietan. Hiru dendatan zerrailak ateria egin zituzten eta bitan sartzea lortu.

Orio optikako Idoia Manterola, lanera iritsi zenean, zerraila falta zela ikusi zuen. Barruan gauzak beren tokitik mugituta zeuden, tiradoreak irekita, eta pare bat gauza txiki eta txanpon batzuk falta ziren. Ertzaintzari deitu zionerako, harrapatuta zeuden bi lapurra.

Donostian lapurtutako auto batean etorri ziren Oriora 19 eta 24 urteko lapur gazteak. Macad antzinako altzarien dendaren jabeak, Eduardo Julek, goizeko bostetan aurrkitu zituen ekintzatuta bere dendan, hera eta berarekin ziohana dendan sartu bezain pronto. Bi gazteek kontsumo pertsonalerako sustantzia ilegal omen zeramatzen aldean.

Dena 100eko dendan ere sartzen saiatzen ziren; baina, nabiz eta zerraila atera, ez zotela lortu kontatu digu Mirari Alberdik.



DODORE JARRITA. Tolosako arrakastar izan ondoren, Oriola ere kontzertu bikaina eckaini zuten.

Ellerhein abesbatzaren agurra

■ *Estoniako neskek negarrez esan zioten agur Oriori*

ELLERHEIN ABESBATZA ESTONIAKO 43 neska gaztek osatzen dute, eta aurtengo Tolosako abesbatza lehiaketan 2. saria jaso dute. Urriaren 25ean etorri ziren Txurrukara, eta gelditu gabe ibili dira batetik bestera bisitak egiten eta kontzertuak ematen.

Orioko elizan eman zuten kontzertuan, azaroaren 4an, Tia-Ester Loitme abesbatzako zuzendariak oso hitz ederrak izan zituen hertaratu zirenenetan. Kontatu zien 1990ean eta 1997an ere egona zenez, oraingo horretan Zekilaneko obrak ikusita, pentsatu zuela eliza botatzen ari zirela, eta horrek tristura handia sortu ziola bilotzean. Gero, San Nikolas kalea irekita aurkitu zuenean, poz handia eman zion ikusteko elizako obrak zirela eta ez besterik.

Abesbatzak kontzertu ederra eman ondo-

ren, zuzendariak harrizko estatua txiki bat eman zion don Andres apaizari, esanez neska forma zuen estatua utzi nahi zuela gure harrizko eliza ederrean. Han ziren guztien artean *Agur Jamak* kantatzea proposatu zuen Loitmek, kontatuz orain dela 10 urte ikasi zuela abestia eta bizirik mantendu nahi zuela. Oso hunkigarrria izan zen; neska batzuk negarrez hasita zeuden, eta publikoaren arteko batzak ere bai.

Goizeko 4retan jaiki behar zuten hurrengo egunean, abioia hartzeko; baina, hala ere, entzaleak etxera joanda zeudenean, eta haien kaleko soinekoak jantzi ondoren, elizako zimitorioan abestu zuten berriro hain maite duten *Agur Jamak*. Gaueko iluntasunean ematen zuen harriak ere hunkituko zirela nesken ahots gozoak entzunda.

BERRI LABURRAK

Oribale orkestra Torrelavegara

ORIBALE, Orioko Udal Musika Eskolako Eskusoinu orkestrak, iaz izandako arrakastaren ondoren, (Nazioarteko Leihaketan urrezko domina eta lehen postua eskuratu zuten), aurten ere Torrelavegan izango dira azaroaren 24, 25 eta 26an. Bertan hartuko dute parte Oribaleko 14 ikasleak, eskusoinuiko irakasle Itziar Zabalak lagunduta.

Ondorengo hauek dira ikasleak: Eskusoinuarekin Leire Arruti, Aiora Uranga, Leire Esnaola, Maialen Alvarez, Ane Bordagarai, Leire Fernandez, Izaro Herranz, Xabier Ibarguren, Eider Iribar, Shua Larrañaga, Omintza Manterola, Leire Osa, Laida Zulaika, eta pianoan Eider Murillo.

Exhibicionista

AZAROKO lehenengo egunetan exhibicionista bat ibili da Ibai Ondoko paseoan, Zeramikako etxe luzearen ondoan. Jendeak iku si du idiarena jotzen eta herriko lau emakumeri, gutxienez, susto galanta eman die bat-batean bere sexua erakutsita.

19-25 urteko gaztea da, eta motoan ibiltzen omen da. Udaltzainak jakinaren gaimean daude.

TragoXka
Pub

Aritzaga, 11
06453 13 08 25

Be araindegia
MARIO

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO



EDARTEGIA
KOLON TXIKI
JATETXEA
Hondarribia, 4 - 08800 Tel. 9453 00 44

HANDIK ETA HEMENDIK

J.M. MAKAZAGA

Alkatea

"Orioko-Udal Akordioa, espirituz behintzat, berregitea espero dut"

DEIA 00/11/04



JORGE OTEIZA

Artista

"Arraunlanak garrantzi gutxienekoak izan beharko luke, eta garrantzitsuenak dira... Nor eta 14 arraunlari!

Zein naiz ni orain?
Giliollas bat!"

KULTUR ETXEA 00/11/04



IMANOL ALGUACIL

Futbolario

"Jaenen egoteak
Andaluziako jende ona
ezagutzeko aukera
eman dit."

DIARIO VASCO 00/10/23



BILBAO. Oposizioek bidera irekia egin zuten azaroaren 2an; 50 bat berritar agetua zirela.

Alkateak plenoa deitu eta azaldu ez

JOAN DEN ASTELAHENERAKO, hilak 13, ezohiko plenoa deitu zuen Alkateak bere dedikazioaren kontua, berriz, eztabaidatu eta erabakitzeko. Arratsaldeko razpiak iritsi ziren, ordea, eta ez zen Alkaterik ez EAjko zinegotzirik azaldu. Idazkariak, legeak dioenari jarraiki, plenoa bertan behera geratzzen zela adierazi zuen. EH eta EAko zinegotziek beren iritzia adierazi ziguten: *Salagarria trádizen zaigu, ulte batez, beste alderdiakikoa alkatea azaltzen ari den jarriera petrala eta iraingarria; eta, bestetik, bere irteabide pertsona-*

nala bilatzeko eramatea eri den jakut, alderdiakiko goi mailan presioa eginez, zioen EHko Emeterio Irabarrek, Jose Miguel Leundak, aldi, plenoa zentzurik gahekota zela adierazi zigun, lehengo erabaki berak hartuko baileteke: Hori es litzateke geratutako, aurreik aderdi eta zinegotzickin hitz egitea halu.

Alkatearekin ere hitz egin genuen biharamunean eta honako hau esan zigun: *E AJ eta EAko ekzekutibak bidera egitekutako dira, azkena bideratzen saiatzen. Ganzak argitu arte, plenoa atzeratzea erabaki nuen, denbora bartzeko,*



Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia,
Ogitartekoak, plater konbinatuak.

GIRO ONA!!!

ANTILLA

943 83 23 09 JATEKXEA

Berriro zabalk!!!

IKAS- LEARN
Akademia

11 urte zientzietan

- * Ikerketa biziak unibertsitateko ikarretzat
- * Asteletoa ofizialak: PET, First, Advanced
- * Matematika, fisika eta kimika
- * Ikerketa klasikak. Hizkuntza Euskal hizkuntza-maila gertak

ETXOKRAIN
FRANTZESA ETA ALEMANA

Ibai Ondo, 8
Tel. 639 40 50 05



RAMIRO
943 83 10 48



NASI AURRETIK.
Kurrika egin
surverik
sterotak
argatzia da
baiz
autobusa
azteam
zutela. Gero
izango ziren
korriketak!

KORRIKA

Behobia-Donostia lasterketan oriotar askok hartu zuen parte

■ *Hamazortzi lagun joan ziren autobusez, besteak beren kasa*

JOAN DEN IGANDEAN, azaroaren 12an, izan zen udazkeneko lasterketari garrantziotsuena: Behobia-Donostia. Oriotar ugarikegin zuen korrika, iaz baino gehiagok. Gehienak autobusez joan ziren Behobiara, hogei bat lagun, baina beste batzuk beren kasa bertaratuz ziren. Guk dakigula, hauetan izan ziren helmugara ailegatu zirenak: Carlos Etxeberria, Manuel Ventas, Iñigo Uranga, Martín Urresabizkai, Jose Manuel Lopetegi, Hassan Tiar, Paco Casado, Jokin Arostegi, Xanti Aduriz, Daniel Barrenetxea, Zigor Etxaniz, Pako Alberdi, Patricio Bravo, Adolfo Diaz, Carlos Fernandez, Miguel Angel Sarasua, Nerea Amilibia, Santos Carretero, Iñaki Maizoz, M. Isabel Aizpuru, J. I. Atorrasagasti, Xabier Azkue, J. M. Arruti, Imanol Uranga, Andoni Sarasua, Imanol Manterola, Julio Aranburu, Manu Etxa-

be, Ramon Soto, Iñigo Fernandez, Ines Zinkunegi, J. A. Iradi, Izaskun Iradi, Urrategi Muñika, eta Eusebio Ruiz oriotarrak. Aiarrak, beatriz, J. M. Aldalur eta Antonio Atxaga.

NORRIKALARI ASKO, BAINA TALDERIK EZ

Orain dela urte batzuk atletismoa praktikatzenko talde bat sortu bazen ere, gaur egun ez dago inolako antolakuntzariak Orioko korrikalarien artean. Alde horretatik, talde bat sortzearen beharra adierazi digu Jose Inazio Atorrasagasti *Panak: Pena da denok elkarrekin autobusez ez joatea. Leben hiztagen talde bat, baina desegin egun zen. Ez kiruddegia berriarekin balako talde bat sortzen den. Horrela, beste lasterketetara ere joan gitezke eta entrenamenduetan ere elkarri lagundu geniezaiotek. Udalauren laguntzarekin, autobusak eta bestelako zerbitzuak ere jarri genitzake.*

ARRAUNKETA Banderen bedeinkaziao

DATORREN igandean, azaroak 19, herriko Udalak antolatuta eta Arraun Elkartearren laguntzarekin, sertengo estropadetan irabazitako banderen bedeinkaziao izango da. 10:30etan, meza nagusian, banderen bedeinkaziao egingo da elizan. 11:30ak aldera, udaletxeko balkoian 2000. urtean irabazitako banderak jarriko dira. Guztira, 20 bandera izango dira. 13:00ean traineru estropada izango da errioi eta segidan, 14:30ak aldera, senide arteko baxaria egingo da Aginaga sagardotegian.

Bestalde, eta arraunlari eta entrenatzaileen fitxaketa direla-eta, Dionisio Redondo Donostiarra Urkik fitxatu du datorren denboraldirako. Zarautzen utzitako hutsunea, *Beltza* arraunlari zaraustarrak beteko du.

PILOTA

Urdanetako finalak

SANMARTIN festen barruan, pilota txapelketako finalak jokatu ziren Urdaneta auzoan. Banakako txapelketa Eizmendik irabazi zuen Santxoren aurrean. Binakakoan, berriz, Sarasua eta Santxo gailendu ziren Zenobia lehengusuen aurka.

Bestalde, Olasagasti aizkolarriak Saberriko pagoa ebakitzeari zuten ordubete eta 10 minutuan; jende pila bat zen saioa ikusten.



ARKAITZ
Taberna

Pintxoak, plater konkretuak,
bebekak

Abeslari kalea, 4 Tel. 943 83 16 57 ORIO

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Godiari, 29

Telfonak: 943 23 60 05
943 13 25 32

ESKUBALOIA

Iñigo Moreno eta Iñigo Salaberria elkarren aurka

EUSKADIKO kopajokoan zutela, Iñigo Salaberriak, Arrate taldearekin, eta Iñigo Morenok, Zarautzkin, elkarren kontra jokatu zuen joan den azaroaren 1ean Zarautzen. Arrate taldea, iaz maila igo eta gero, ohorezko mailan dabil, B kategorian, Espaniako bigarren kategoria, alegia. Zarauztarrak, berriz, iaz kategoria galdu eta gero, maila bat beherago dabilta aurten, lehenengo nazionalean.

Jende asko joan zen partidua ikustera, oriorat batzuk ere hai tartean, eta prograga jokatu eta gero, azkenean Arratekoak irabazi zuen partidua. Arratekoak, beraz, aurrera.

FUTBOLA

Txartel banaketa

AZAROAREN 26an, igandearekin, Orioko Futbol Taldeko bazkideei txartelak banatuko zaizkie udaltxeko arkupe azpian, goizeko 10:00etik eguerdiko 14:00ak arte.



HIRU ORIOTARRAK. Beir Ostalarren sartan, biru dera aurrean Usurbilaren ibili diren judokak: Oiana, Xabier eta Ibai.

JUDOA

Euskadiko txapeldunak

AZAROAREN 5ean JOKATU zen Erreteriako kirolegian Euskadiko Judo Txapelketa senior mailan eta bi oriotarrek Euskadiko Txapeldun izatea lortu zuten: Ibai Peñak eta Oiana Blancok. Ibai Peñak 60 kilo azpiko kategorian lortu zuen urezko domina, borroka guztiak *bijpon* bidez irabaziz. *Aurtengoan ez nuen espero irabazterik; baina, azkenean, nuste buinobetoz joan da txapelketa,* zioen Ibaik.

Oiana Blancok 48 kilo azpiko kategorian irabazi zuen, eta, nahiz eta gaztea izan, 17 urte oraindik, zaharragoci gailendu zitzaien.

Xabier Urkizu, berriz, bosgarren geratu zen

bere kategorian, 73 kiloz azpiko kategorian. Maila handiko kategoria izan omen da Xabierrena, eta, hala ere juxtu-juxtu kale-ratu zutela esan zigun Ibaik.

Hurrengo astean, aldiz, 18 urte azpiko Espaniako Txapelketan hartu zuen parte Oianak Madrilren eta bosgarren geratzea lortu zuen. Aipatzekoa da, Ibai eta Oiana ipar sektoreko txapelketan parte hartzeko sailkatuta daudela; urtarrilean izango dute zita hori. Hiru judoka oriotarrak Usurbil dabsiltza aspaldian, Esteban Arillaga entrenatzaile dutela.

PATXI OLIDEN
VERTECTIC
PATXI
OLIDEN
Txapeldunak

Hemengo horriga.
Etxeko produktuak: tripoli, odolki,
txokoma, tsarizo, krokotok...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

IRADI
AHORRARITZA

Aita Lertxundi, 33 Telefax 943 13 46 96

AZKUE
Itsas-gaiak

Eusko Godaria 12
C. 943 83 25 55

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Oleskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko razio bereziak

Tel.: 943 13 30 14

eriza
usaindegia

Teléfono: 943 83 09 79

NIKE HONETAN

Txorrossilleroa

Xuria tabernan baxoerdi bat hartzen gelditu gabe bota omen zuten taberna eta sartu gabe gelditu zela esanez idatzizuen lehengoan batek KAR-KARAn. Garbi dago parabola batzela, ebangeliotakoan antzekoa. Esan nahi zuen, ostan da, ez uzteko bilharkogau regin daitekeena; ez geroko gerotan geratzeko. Egun gutxira aukera izan nuen Orion berrian ahol-kua aintzat hartzea: txorrossilleroa ikusi nuen udaletxeko karkaran, txiki-txikitik askotan ikusi dudan bera. Eta konturatu nintzen ez nekiela ia ezergizon hari buruz. Banekien kubillo, kamutsak zorroten zituela bere bizikletarekin, pedale eraginez, bestetik ez. Berarekin hitz egiteko gogoa sortu zitzaidan; nire bizitza osoan gertu izan arren arrotz zitzaidan gizonarekin. Ez nintzen tamutu. Atsegina da, ondo hartu hinduen. Orain badakit galiziarrak dela eta 50 urte inguru daramala Zumaia-tik Oriora etortzen. Nirekin zen slabak galdu zidan gizona zertan ari zen, esan nion kubilloak zorroten ari zela; gizonak euskeraz ez dela kubillo esaten, nik orduan labana alipatu nion; hark esan zidan labana *navajo* dela; eta kutxilioa, aitzoa. Galiziarrak euskal irakasle izan nuen.

Gauza importantez idaztea nuen. Baino yankien haueskundeekasper-asper eginda naukate; ETAren atentatuak nazkatuta; PP eta PSOEren ahoko diarreak pototaraino. Eta txorrossilleroaz idatzi dut. Alde ederra!

INAKI ITURAIN

Eliz dorreko erlojua

ANDRES GARMENDIA

Zahartu egin zaigu. Jubilatzeko egunak heldu zaizkio, ehun eta hamasei urte luze hor goian egin eta gero. Gau eta egun bere eginkizuna zuzen betez, luze-zabal herri osoari, kanpai soinuz, orduen berri emanez. Isildu da, ez dugu gehiago entzungo, gaitasuna galdu duelako.

Zahartu egin zaigu: hortzak gas-tatu, ardatzak herdoidu, atzera eta arrera ezin neurri zuzenik hartu, kuerda maizeman behar, tirri-tarra handiak... Zer gehiago eskanuko diogu?

Askotan jartzen nintzen hizketan berarekin, han goian: *Zure herri emaidazu; nondik zatoz eta zer egiten duzu, bor, bakardadean?*

-Hara, Usurbilgo Aginuan sortu ninduen Veregia jaun ospetsnak, 1884. urtean. Nire senideetan balmalaugarrena nauzu. Hala dio bemen galdean danakadan burdinazko txartel-agiri honiek. Oriora saldu ninduen nire egileak, trikuean leben zegoen erloju zaharra eta beste 3.000 erreale dirutan. Orioko Udalak egin zuen tratu hori eta ordaindu. Harrezkerro bemen egin dut nire bizi osora, elizdorran nire zerbitzua berritarrei, apala bezain bebarrezkoa. Nire esanetara eta neurriira mugitzen zen jendea. Neri begira-begira ikasten nituen eta nik erantzuna bidali denei.

Askotan izan nazi astindua, ekaitz indartsu eta gordinen erdian, eguzki erreka moteldu ere bai, izotzak zuriak eta beltzak erakutri dizkit. Elizako teilituarekin batera igaro ditut eguraldi txar eta on guztia. Orain biok batera kendu eta baztertu egingo gaituzte. Mugatuak garela aitortzen dugu, ez gara besikoak. Gureak egin du, baina gurea ere egin dugu. Ez gaude nabigabetua. Besteek hete dezelatela guk utziko dugun tokia. Ondo izan zaitzeste, lagunok!



“

Gure kezka zera
da: nolatan
osatu diru
laguntzak, lan
- guztia
ordaintzeko.

Ez zara makal izan, erloju mai-tea. Agur eta eskerrrik asko.

Erlojua eta tximistorratza Udalearen arduraean izan dira betidainik, Teilarria eta erlojua berritu eta elkarren ondoan berriro luza-roan hor ikuisko ditugu, herriari bere zerbitzua egiten.

Elizako teilitua eta hormen konponketa aurrera doa, baina ez guk nahi bezain azkar. Eguraldiak ere ez digu gehiegilagundu. Dena dela, Eguberriretarako amaituta ikusiko dirugu, inolaz ere.

Eskuratu izango duzue, honezkerro, orritxo bat, parrokiatik bidalia. Hor azaltzen ditugu gure ahaleginak eta amets guztia, ekin-tza bikain hau aurrera eramateko. Gure kezka: nolatan osatu laguntzak, lan guztia ordaintzeko. Laguntza esan dut eta ez inor behartzea, derrigortzea; borondatez eta gogotsu. Hamaita esaldi celebre badira gure artean, hitzez hitz esaten eta entzuten ditugunak: *Orain ere eskean... nik bartuko niket mork emanez gero. Ez zaudek nire larruan... Elizak diru asko zenakak motel, eta abar. Jakintzak nork esaten duen edo eta zergatik!*

Proiektu handi baten aurorean egonda, Foru Aldundira jo dugu lehenengo eta %65eko dirutza eskaini digute. Herritarroi dagokigun kopurua bideratuko dugu, gutxi barru, etxez etxe banatuko den txartel baten bidez. Jaso, ikusi, poltsikoarekin kontsulta egin eta erantzun. Gehienak zain zaude eta eman laguntza hori. Onartua izango da. Beste batzaiek, kasorik ere ez. Zakar ontziak zertarako dira, ba! Demokrazia ahotan dabilgigu, han eta hemen, goi eta behe. Hona hemen demokrazia jartzeko modua. Denok gauza batean adostasuna: Gora Orio!

**TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA SL**
TIRROKAR - BALBUIAK

Santiago auzoa - 18 postkutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: imanterola@euskolnet.net
20.810 ORIO - GIPIZKOA

TMM


AENOR ISO 9001
Sferoko balbulo
AENOR kalitate ziurtagiriduna

URAITZ
LURKINDEGIA
KIROMASAJEA
ESTHETICIEN

FUNDATZA: 1990. TEL. 943 83 18 97

K2
taberna

Zeuk bilatzen
duzun giroa!!



HERRI CUZTA FRANCORI REGINA. Elizako eskualdeetan, ezkerretik hasita: militar bat; Eleuterio Arrizenea, organista eta udaleko idazkaria; Alicia Arrizenea; Jose Agustín Orbezo, alkatea; don Hilario, erretorrea; Franco; Antoni Urtasua; María Arrizenea eta Mirra Rezabal.

Franco gure artean

Azaroaren 20an hogeita bost urte beteko dira Franco hil zenetik. Gaur egun 35 bat urtetik behera dutenentzat pertsonaia urrutikoa, arrotza, da Franco; 40tik gorakoentzat, berriz, beren iraganeko erreferentzia ezinbestekoa, onerako edo txarrerako. Baino bai Aian bai Orion gutxi izango dira, Francoren garaia ezagutu zutenen artean, orain 25 urteko azaroaren 20 hartan non eta zertan ari ziren gogoratzen ez dutenak, eta nola bizi izan zuten heriotz hura. Franco hiltzea euskaldun frankok txanpaina edanez ospatu zuten, baina izan zen negar egin zuenik ere. Orion eta Aian ere denetik izango zen, seguru.

Haren heriotzaren hogeitaboskarren urteurrenak aitzakia ematen digu pertsonaia historiko hari buruzko aipamen batzuk egiteko eta, bitxikeria moduan, aiarr eta oriotor batzuek berarekin izandako ezagutza aipatzeko, Francok Aiara egindako bisita eta Orioko arraunlariek Francoren itsasontzian, Azorren, bere eskutik jasotako Kontxako bandera zela-eta. Anekdoa modura ekarri nahi izan ditugu kontu horiek gure orri hauetara. Inork ez dezala, beraz, bestela hartu. Badaezpada ere!

IÑAKI ITURAIN ETA PAT COWIE

Garai nahasiak

Orain dela 25 urteko aza-roaren 20 harten, artean ez ziren bi hilabete agure zahar hark, mundu guztitik (Baskoan tartearen) zetozkion kontrako abotsei entzungor eginda, bost gizon fusilatzeko agindua eman zuen etiketan, tartearen zarauztar bat eta azpeitiar bat. Berak abiatu eta irabazi zuen Espaniako gerra inizioburua, milaka hildako eta Gernikako suntsiketa osoa ekarri zituen, eta hura oukatu eta hogeita bost urteratik, 25 urteko bakeo izeneko propagandako kanpaina antolatu zuen. Orain ere 25 urte bete dira berak batea eman ziguinetik.

Diktadorea hil zenerako, erabakita eta aginduta utzi zuen nork aginduko zuen Espanian aurrerantzean: orduko Juan Carlos printzeak, oraingo erregeak. Franco agonian zegoela, orduko agintariekin batera, hartutako lehenengo erabaki politikoak, hogeita bost urte geroago, aurten udan, izan ditu bere ondorioak. Onion: Saharako haurrak izan ditugu gure artean, hilabete pasatzen. Ba, Sahara hori espiniarren eskuetan egon zen urte askotan, hain kolonia bat izan zen; eta espinolak handik aterazirenean, bertakoei beren burujabetza al-tortu beharrean, utzi egin zieten marokoarrei bertan sartzen. Erreferendum bat agindu zitzaien sahararrei; oraindik ez da egin. Horrexen ondorioa da, oraindik ere, sahararrak errefuxiatu kanpamenduetan bizi izatea eta naufrak, ahal dutenean, kanpora bidali behar izatea.

KONTXAKO BANDERA AZORREN

Francok, ia hil zen arte, udal-diak Donostian pasa zituen. Kontxako estropadakere bere «Azor» itsasontzitik ikusten zituen, eta irabazleari bande-



FRANCOAREN. Oriotarrek Francoaren erakutik jas zuten bandera Azorren, 1971n. Ezkerretik ekialdera, goian: Itxaso, Jose Ramon Altxerri, Juanito Altxerri patrula, Franco, bere atzean Jose Mari Karraballo, Jose Manuel Bereziartua, Jose Inazio Perona, Juan Atxegot, eta Altxetarren alkatea; fila tartearen Patxi Sarasua; eta behean: Xalmasti, Nikario Uranga, Jesus Mari Agote, Jesus Mari Perona, Jose Luis Korta eta Juan Angel Lekuona.

ra berak ematen zion Azo-ren. Hori zela eta oriotar batzuek eman behar izan zioten bostekoa. Esate baterako, Claudio Gorriak eta Antonio Olidenek, 1961an eta 1969an Lasarte-Mitxelinekin irabazi zutenean, eta Juanito Altxerrik Oriorekin hainbat aldiz, 1970 eta 1975 artean, Azo-ren jaso zuten Donostiako bandera. Lehenago Mitxelenak eta Iñazio Sarasua ere hantxe jasoko zuten, noski. Jose Luis Mirallesek, berriz, hala esan omen zuen behin, patroi Zumaiako traineruan zebilela, alegia berak lortuko zuela «gorriak» Azoren sartzera. Txiste polita zen, baina ez zuen lortu. Antonio Olidenek jaso zuen ere, hala esan zion Fermín Altunak: *bustekoa kontuz emaiak agure zahar horri, bestela eskuapuskatuko dioketa*.

Azor itsasontzi horretan soldaduzka egindako Orioko mutilakere asko dira; eta Francoren tartearen beita egiteko balio zuen. Alcatraz itsasontzian egindakoak ere bai. Hala ere, guk dakigula behintzat, *Patxi* ez zen sekula Oriora etorri. Aiara bai.

AIARAN BISITAN

Franco 1945eko irailaren 20an etorri zen Aiara. Orioko gainean zeuden soldaduak maniobra militarrak egitekoan ziren Eztenaga baserri inguruau eta, Franco Donostian zegoenez, maniobra horiek ikusteria etorri zen eta, bide batez, Aia bisitatu eta soldadu horiek batera bazkaltzera. Berak esan omen zuen tiro batzuk jotzen etorri zela. Hurrengo eguneko *La Voz de Espana*ko titularrek zioten: *El Generalísimo asistió a un ejercicio táctico de la División 162. Oro en la iglesia de Aya, rodeado del fervor de los soldados y el pueblo*.

Goizean abiatu zen Franco Aieteko jauregitik Orio gaineko kanpamentura. Legazpi 123 batailoiko soldaduak bildan zituen zain, ohorezko desfilea egiteko. Iritsi zenean, sekulako harrera egin zioten militarrek, *rimmo nazionala* kantatuz. Handik Aia aldera abiatuzen Franco, maniobrak

ikustera. Soldaduek Eztenaga ingurutik Billabonara doan bidera pasa behar zuten, eta hain behar bezala. Agerri Buru inguruari tribuna moduko bat jarri zuten, Franckok maniobrak handik ikusteko. Haien bukatuta, jeneralak Aiara jo zuen. Bere ohorez jarritako arkupe erramuz apaindutakotik egin zuen sarrera. Handik plazan sartu zen berarekin zetozenten militarrerik: *El vecindario dispensó al Caudillo un entusiástico recibimiento, aplaudiéndole y vitoreándole sin cesar*. Plazan zain zituen Jose Agustín Orbegozo Beloki alkatea, Agerre baserrirroa; Aiako orduko lau apaizak; don Hilario Larburu erretorea, don Sebero Izagirre, don Juan Telleria eta don Julian Legarra; Urdanetakoak; don Daniel Uztia; Aiako organo jole eta idazkari Eleuterio Aurizenea; eta Imanol Izagirre medikua, beste askoren artean. Polizia sekretu asko ziren herriko jendearen ar-

«Tiro batzuk jo eta soldaduekin bazkaltzera etorri zen Aiara»

tean, paisanoz jantzita; baina herrikoek, jakina, ondo zekiten nortzuk ziren. Eskolako umeak ere zain zeuden, mojek emandako Espainiako banderak eskuan. Haietako batek hau esan digu: *Guk zer pentatu genuen, bat? pozik, ekuolara joan gabe eta ekuun bandera bat makila eta guztia!* Bi otar opari tu zizkioten: bi oihasko, fruta eta artaburuz osatuak, eta loren sorta bat. Horretaz arduratu ziren bi neskak Alizia Aurizenea eta Miren Rezabal izan ziren. Aliziak, topolinozko zapatak jantzita, bi musuren truke, aurretek ondo ikasitako hitzak esan zizkion Francori: *Su excelencia, Caudillo de España, reciba este pequeño obsequio de la universidad de Aya, para su hija Carmencita.* Loreak txoferrari eman zizkion Francoek eta herriko hatzuk dudan geratu ziren ea Aiete jauregiraino eraman zituzten. Ondoren, elizan sartu zen paliopean eta herriko txistulariek himno nazionala jo zioten. Elizan otoitz egin ondoren, Salve bat kantatu zuten eta, elizako organoarekin himno nazionala jo zuten ostera, Handik aterata, luze jardun



DENOK PLAZARA: Gaurko kultur etxeko boeretan, hebea piztan ezkubi aldean albondiga eta ezkerreko garajea zenden, lehenengoan, escola, eskuliburu mutilak eta ezkerreko uskak, hamabundutu jakinak; eta goikoa, guardia zibilak. Albondigak goidezten zituzten arraziorientatu zenden jakinak, gobiaienak baserrietatik ekarritakoak. Argazkiaren ezker aldean: don Daniel, Urdanetako apaiza; bere atzean, Manole Etxagirre mailukoa; Francoren ezkerreko Jose Agusti Orbegozo alkatea, Agerrekoa; eta argazkiaren ezkubi aldean ikusen den azken gizuna, Eleuterio Aurizenea, organista eta udaletxeko idazkaria.

omen zen hizketan alkatearekin, baita gauza asko agindu ere Aiaren onerako. Handik deribora puskatera, aginduak ez zirela ezertan betetzen iku-sita, hala esan omen zuen alkate hark, baserre: *denak berdinak dituztuk!*

Bazkaria soldaduek prestatu zioten. Egun batzuk lehenago ere, Aiara etortzekoa zenenez, Zarauzko jatetxe dotorebatean hamaiketako ederra prestatu zioten Francori, bai-

na ez zen agertu eta han gelditu ziren kamarera guziak bere guante zuri berriak zikindu ezinik. Horregatik esan zuen gero, etorri zenean, ez prestatzeko ezer, berak soldaduekin baxkalduko zuela-eta.

Bazkal ondoren oinez bueltatu zen etorri zen bidetik. Jendea harrituta zegoen nola egin zuen hain bide luzea oinez Franco, gehienetan, automobilez ibiltzen baitzen alde batetik bestera. *La Voz de España*k ere horren aipamen beretza egim zuen: *se dirigió a pie...* Bidean, han zegoen zain Martina Erriza, Cristinaren amona, eta Franco parean izan zuentean: *Adinc, Branko!* esan zion. Agurra entzunda, geratu egin zen Franco, eskua eta inusu emateko. Gero, Cristina etxeratu zenean, amonak ederki jo zion adarra bilobari, neskatxa egun osoan Franco gertutik ikusteko ahaleginetan ibili haitzen, eta amonak, Branko deitu bazion ere, etxe aurrean bertan ikusi eta ikutu egin zuen.

Horrela bukatu zen Franco Aiara egindako bisitahura,

PAUOPAN Herriko txistulariek lagunduta sartu zen elizara. Arkupen danden biru apatzak, ezkerretik barita, don Scherru, don Hilario eta don Julian dira. Eskubian, txapela jantzita, Jose Francisco Ibarrola, herriko danborerua. Aurreko plamaren ikusen den gizuna, polizia sekretua. Askotan etorri zuten ziren, paisanoz jantzita, batua Aia denek zekiten zein zirela.



AIAKO berri



ZINGOTZI ETA ANTOLATZAILEEN ARTEAN. Udalaren omenaldia jaso zuen Erreristak bainbeste urtetan deman ibili eta geru...

Dema iskanbilatsuak

■ Juan Aranbarri 'Erreistak' omenaldi beroa jaso zuen

AZAROAN 2000KO IDI proba txapelketa egin zen herriko probalekuuan. Azkenean 20 idi pare jardun ziren lehian (horietatik bi, sarikezatzen kanpo) eta bakarra herrikoa: Izetarena, hain zuzen ere. Irabazlea Arientza izan zen, 52 plaza, zinta 1 eta 1,76 cm-rekin; bigarren, Telleria (52 plaza justurekin); eta hirugarren, Egurbide (47 plaza, 2 zinta eta metro bat).

ISKANBILA HENDIA

Igande arratsaldean Lopategi, Olarrea goikoa eta Rosario izeneko idi pareak aritu ziren;

lehena eta azkena jabe batenak ziren. Lehenengo bi idi pareak arazorik gabe jardun ziren, baina Rosario izenekoa abiatu eta minutu batzuetara, harria nabarmen irristatzan hasi zen jendearen txistu eta oihuen artean. Epaileek gelditzeko agindurik eman ez zutenez, ikusleak gauzak botatzen hasi ziren plazara; azkenean, jendea ere plazara aterta eta proba gelditzea lortu zuen. Plazako lurra aztertu ondoren, produktu ezezagun baten aztarnak aurkitu zituzten, baina ezin izan zaito orain arte inori leporatu; orain Federazioak du hitza.

Auto istripua

JOAN den azaroaren 8an auto istripu bat izan zen Zarauzko kantinoko gurutzebidean. Istripuaren ondorioz, KARRAKA-Rako laguntzaile Josune Azpiroz zauritua gertatu zen eta denbora luzea beharko du erreuperatzeko.

Bizikleta irteera

ABENDUAREN 6an bizikleta irteera bat izango da Aiati Urdanetara Etxeta balaratik barren, goizeko 9etan hasita. Atxoko KEk antolatzen du eta herriko guztiei irekia izango da; bakoitzak bere bizikleta eta jateko craman behar du. Izena Kultur Etxean eman behar da, eta epea abenduaren 1ean bukatuko da.

Eguberriko I. pala txapelketa

BINAKAKO pala txapelketa antolatu du Aiako KEk Eguberriko. Bete beharreko haldintza bakarra federatua egotea da. Txapelketa abenduaren lehenengo astean hasiko da eta izena emateko epea azaroaren 24an bukaruko da.

Izena Kultur etxearen eman behar da edo, bestela, udaletxean edo Joseinazio Atorrastagastirengana joz.

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak
Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

Tel: 943 13 28 93 / 63 08 80 / Mugikorru 656 78 30 01 - 656 78 29 80

SEGA

ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tfnoa: 943 83 07 16
Santio Erreka auzoa

ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro Tfnoa: 943 83 45 21

Juan Fermín de Gilisasti

Aingura handiak egiten zituen aiarra

Aia eta burdinaren arteko barremau estuaren hastapenak Erdi Aristik ezagunak dira. Burdin meategirik ez bazuen ere, lebengaia gorituko zuen energia eta oletako tresneria mugitzeko behar zen uraren energia bai, ordea. Erdi Aroan basitako burdin industria bark, XVII. mendean behera egin bazuen ere, XVIII. mendean, burdin industriaren arlo bat —ainguragintza— izugarri garatu zen J.F. de Gilisasti aiarrari esker.

ARRETA K.T.

Noiz jaio zen ez badakigu ere, bai ordea, noiz hilobiratua izan zen: 1784ko martxoaren 29an eman zitzaion lurra, gariko burgesiari egiten zitzaizkion elizkizun paregabeak jaso ondoren; hori dio, behintzat, Aiako artxiboa dagoen heriotza-agiriak.

AIAKO SEMEA

Jaiotetxearen berri ez haukagu ere, bai ordea bera bizi izan zen etxearena. Oraindik zutik dago Iturri kalean. Lanki itxura duen etxe sendoada, harlanduzkoa eta hormak grisel teknikarekin (Holandan egon zen garaian ikasitako teknikarekin) dorretuak ditu.

J.F. de Gilisasti garaiko gipuzkoar burgesiaren partaide izan zen. Lur jabe handia, merkataria eta oljaun sonatua izateaz gain, bere ospea ainguragintzan lortutako arrakastagatik datorrkio. Bera izan baitzen aingura handiak Espanian lehendabizi egin zituen.

XVIII. mendearen erdialdera, ontziolak izugarritzko gorakada izan zuten. Horrek, ordea, zenbait elementu behar berrietara egokitzea eskatzen zuen, eta horien artean ontziak lotzeko aingurak.

Barkuen aingura eta horrelako tresnak egiten oso gizon artetsua izan arren, gaztaroan Holandara, Herbeheretara, joan egin behar izan zuen —Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarrak babesturik— bertako teknika aurreratua ikastera.

OLANDARA IKASTERA

Han, ezkutuan, langile arrunt bat bezala, eta bizitza areiskuan jarrit (lehen espior industriala izan ote zen?), aingura handien teknika ikasi eta lan berriaz jabetu zen. Gainera, etxerakoan, hango langile bat ekarri zien harrikatza sustegietan erabiltzen trebea zena, eta egur-ikatzek aingura-besoak galdatzen eta hotzberotzen zekiena. Guztia hori 1739. urte inguruaren gertatu zen.

1740. urtean eraiki zituen lehen aingura handiak Arrazubiko burniolan —oraindik bere aurriak ikus daitezke—.

Donostiaiko kaian salgai jarri ondoren, Erret Haziendakkin-taleko 165 erreal ordaindu zituen. 1787. urtean, Jose Antonio Enríquez jaunak, Karlos III.aren idazkari eta Gipuzkoako kaien arduradunak zera zioen: Juan Fermín de Gilisasti, 72 gipuzkoar kintaleko (3600 kiloko) aingura egitera iritsi zela —Espainian ordura arte egindako handiena—, eta aia ospetsu hari agindu ziola bai Gipuzkoako eta bai Espainiako ainguragintzarako lehen ola aurreratua eraikitza eta, ondorioz, aurrerantzean Hollandatik aingurak zer ekarririk ez zutela izango.

ETXEAN MAISU

1750. urtean, Hermaniko Fagollaga burniolak Erret Armadarako aingurak egiteko ituna sinatu zuen. Erabaki hau, erregeak Karlos III.ak, J. F. de Gilisasti maisua fabrikako ikuskarri izendatuz osatzen da. Fagollagatik atera ziren aingurak Espainiako Erret Armadak Cadizzen, Ferrolen, Cartagenan eta Hego Amerikako kolonietan zituen itsas armadak horritzen zituen.

Fagollagako aingurak Espanian egiten ziren onentakoak ziren bai teknika eta bai kalitate aldetik. Frantses, holandar eta ingeles ikuskarriak txunditutik geratzen omen ziren aingura handi hainen bikaintasuna eta edertasuna ikusi ondoren.

OKENDOREKIN EZTABAI DAN

Urte haietan gorespen handiko hitzak jaso zituen J.F. de Gilisastik, olagizon maisua. Okendo jaunarekin, Itsas Armadako almirantearekin, behin baino gehiagotan eztabaidatu bazuen ere, hark ez zuen inoiz Gilisastiren jakinuria eta trebenasuna zalan-tzan jarri. 1780. urte inguruaren oraindik, Itsas Armadako ministroak, gilisastitaren (Juan Fermín eta Juan Antonio semea) teknika, instalazioen perfektioa eta produktuen kalitatea goraipatu zituen.

1784an Aiako burnigintza garapen ekonomikora eraman zuen gizona zenu zen, eta harekin batera galdu zen Aiako burnigintzaren tradizio zaharra.



GILISASTI Gilisasti bizej zen etxea, Iturri kale 200. Gain ere jendea bizej da etxa eder bonetan.

Intsumisioa

ANTXON GOMEZ

Duela 17 urte ezagutu nuen Sabino Ormazabal. Le moitiko zentralaren aurkako borrokaz gero Euskal Herriko mugimendu ekologista makal zebilen. Gure herriko arazo ekologiko larriei aurre egiteko eran, zalantzakor. Militante batzuek, Sabino haien artean, sakabanatutako talde ekologista guztiak koordinatzeko batzar bat antolatu zuten Nafarroako Makinriain herrian. Han ezagutu nuen Sabino. Ekologia, Euskal Herriko askatasuna eta antimilitarismoa. Herri mugimendua indartu. Horiek izan dira bere betikoko kezkak. Lanbidez kazetaria, Eginen eta Garan. Ingurugiro sailaren ardura duna lehen, iritzi sailarena gero. Euskal prentsaren etsaiak ere harritzeko moduko zabaltasuna eta aniztasuna eraman zituen orrialde horietara.

Ezker abertzaleko zenbaiten buru kuadrikularuetan antimilitarismoaren baloreak sartzen hainbat lagundu zuen lagun-

na. Bere bizitza guztian borroka molde baketsuak aldarrikatu dituena. Beste hainbat jenderekin batera, bakearen aldeko Zaramagako manifestuaren sinatzailea...

Duela aste batzuk Donostia bere etxean atxilotu eta espertxeratu zuten Joxemi Zumalabe fundazioko beste host kiderekin batera. Haietako hainbat ere aspaldiko lagunak. Garzon-Torkemada epaileak «el orden constitucional español» iraultzeko ez dakit zer nolako konspirazio judeo-masóniko-abertzale-euskaltzaleren partaide izatekoak. Ditzosozko Euskal Nortasun Agiria zabaltzea, kotaean EH pegata jartzeko kampaina, euskal kirol selekzioak antolatu nahi izatea eta antzeko pareko akusazioak. Intsumisio mota txikien bidez gure herriko askatasunaren alde horrokatzen.

Egun hartatik aurrera ni ere, Aiako leihon honetatik Euskal Herriko begira, apur bat intsumituagoa nauzue.

AIAKO LEIHOA (ENDEAK)

**57 URTE ELKARREKIN**

Olaberri baserriko Jose Juan Lertxundi Odriozola eta Maria Arriola Muruak mende erdia baino gehiago eman dute elkarrekin. Orain dela 57 urte ezkonduz ziren, 1943ko azaroaren 4an, eta, aurten, egun berezi hori familiarekin ospatu zuten. Zortzi seme-alaba, hamabost biloba eta bi berbiloba dituzte.

HARDIARA
EGIN EZAZO ZURE PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN
943 83 15 21

PERTSIANAK
A K O M A Z
Aluminio, PVC
Venezolanak
Motoryak...
Tlf. 938 89 91 Magloria 600 70 52 27

ERROTA
- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneke menua (Janegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

ORIOTARRAK

komitea

Larogeita barnarreko hamarkadan kirol ekitaldi ugari antolatu da gure berrian: txirrindulari itzulien bukarrak, estrupadak, krosak, bizikleta probak... Bada, horien guztien atzetik talde bat aritu da lanean: 'Oriotarrak' Orioko Kirol Antolakuntzetaiko Komitea. Orain urte bete, taldea bertan behera lagatza erabaki zuten eta jada ez du Komiteak lanean segitzen. Hala ere, talde bonek utzi duen arrastoa handia izan dela ikusita, txoko bonetan leku egin diogu; zer gutxiago!

RIKARDO UZKUDUN

1992an sortu zen 'Oriotarrak' Orioko Kirol Antolakuntzetaiko Komitea, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia herrikabiaturuz urtean. Etapa hasiera hura antolatzen jarri zuen ostean, horrelako kirol ekitaldietaiko lan talde bat sortzea pentsatu zuten. Hamar lagun elkartu eta horrela osatu zuten Orioko Kirol Antolakuntzetaiko komitea. Hauek izan dira sortzaile eta partaideak hasieratik: Anjel Sasianbarrena, Fernando Ortiz de Guinea, Santiago Martínez, Jon Karrera, Manuel Martí, Jesus Esnal, Ramón Sarasua, Vicente Lasa, Luis Gozategi eta Jose Karrera. Handik aurrera martxan jarri zen Komitea eta makina bat kirol ekitaldi antolatu ditu urte gutxi hauetan.

KIROL PROBAK ANTOLATZEN

Urte berean, 1992an, antolatu zuten aurrenekoz federatuentzako krosa eta Jose María Alberdi korrikalari izandakoaren izena jarri zioten

probari. Gerotik, urtero-urtero, abendu aldera inguruko korrikalari onenak ikusteko aukera izan dugu, Komiteari esker. Aurtengoan ez da izango lasterketarik gure herrian. Otsaila aldera, berriz, mendiko bizikletako lasterketa antolatzen hasi ziren. Jose Karrera Txankak esan digunez, herriko jendeari begira hasi ziren proba hori antolatzetan: Mountain Bikerako proba sortu zen, batik bat, berrian mendiko bizikletan ibiltzen zen

jendea zegoelako eta kanpora joaten zirelako lasterketetara. Lau urtetan jarraian egin zen lasterketa hau, baina 1996an bertan behera lagatza erabaki zuten, herriko partaideen eska-sia zela-eta.

Apirilean, hiru aldiz Luis Atxega harrijasotze proba antolatu izan dute 100 kiloko kubikoarekin. Lehenengo urtean, 1993an, jendetza handia bildu zen eta festa polita izan omen zen.

1993ko sanpedrotan, herri krosa jarri zuten martxan eta 1998ra arte jarraitu zuen proba honek. Hasieran festetan egiten zen; baina, gerora, aste bete aurreratu zuten lasterketa eta ekaineko hirugarren asteburura pasa zuten.

Uda aldera, estrupadak antolatzen hasi ziren baita ere. Lehenengo hiru urteetan estrupadak errioan egin ziren eta gainontzekoak itsasoan, horrela agintzen baitzuen federazioak ligan sartu nahi baZen.

TXIRRINDULARI ITZULIA HIRU ALDIZ

Beste inon ez bezala, Orion hiru aldiz izan da Euskal Herriko txirrindulari itzulia larogeiko hamarkadan: 1992an, 96an eta 99an. Manuel Martík esan digu konfiantza handia dute berengan eta, nahi izanez gero, gehiagotan ere izango zutela aukera itzulia ekartzeko. Gainera, *oso ondo tratatu izan dirugu kanpotik etorri direnak eta ez dute inoiz kexatzeko aukerarik izan*.

Horrelako ekitaldiak antolatzeko herritarren laguntza ezinbestekoa izan dutela azpimarratu digute Komiteok; eta, bereziki, Aldapa elkartea gastronomiko-kulturaleko jendearen laguntza nabarmendu nahi izan dute. Urte osoan lanean jardun beharrak, mendiko garbitzen, bileretara joaten... nekez sortzen duela aittortu digute; baina, aldi berean, biziako pasadizo eta momentu onak ez direla inork kentzeko modukoak nabari zaie surpegietaan.



JOSEBA ELIZGIRIB
ALDE. 1995ko
san Jose
egunean,
29.508
koegidurako
(2.959.873
pta.) bildu
ziren plazan,
mimbizia zuren
maril astearasun-
rrari mediku
gariuetan
loguntzeko.

KANPOAN

daudenak



Begoña Urain Makazaga

”

Zer aurkituko nuen
jakin gabe abiatu
nintzen

Hogei urte egitendituzteneako, normalean, gurasoën etxetik kanpo bizi dira, nahiz unibertsitatean nahiz lanean daudelako. Eta oraindik gurasoën etxearen bizi —gutxi badira ere— beti ordaintzten diente gurasoiei soldataren zati handi samar bat.

Nabarmeneko modukoa iruditzen zait nolako arretajartzen dieten ohiturel eta fami-

liari, eta zer langileak diren. Daukaten astia ondo aproba txatzen dute, askotan garrantzitsua pintak [litro erdia] edanez. Nik, nire lehenengo pinta edaten hasi nintzenean, pentsatu nuen ez nuela inoiz bukatuko. Eta behin, pinta batek lagunduta, baxkari azkarra egiteko, baked/potolobata era zidatenean, adarra jotzen ari zirela pentsatu nuen, patata hori azal erreta eta guztia jaten baitute.

Hemengoek pentsatzen dute Euskal Herria Bilbo dela; baina, eterri naizenez gerotik, hasi dira Orio eta estropadak ezagutzen!

Gaur egun Irlandan bizi naiz, Noas herrian, Dublinetik hurbil, 1999an etorri nintzen, ingelesa ikasteko eta mundu zabalgaoa ezagutzeko asmoz. Orain, familia batekin bizi naiz, 'au-pair' lana egiten. Tarteko orduetan lan egiten dut kafetegi batean.

Alde handiak sumatzen dituthemengo bizimoduak: horizonteak, lagunen falta, janaria, eguraldia, festetako giro berezia. Hala ere, diferentea dena eta gustatzen zaidana da hemen go mestizajea; toki eta kultura ezberdinak jendearekin regin ditut harremanak. Gazteen bizimodua ere oso diferentea da.

JAIOTAKOAK

- Irene Ansorregi Alonso, Orion, urriaren 28an.
- Ibai Tamaio Bravo, Orion, azaroaren 2an.

HILDAKOAK

- Santi Odriozola Alberdi, Aian, azaroaren 5ean. 71 urte.
- Jesus Arriola Murua, Aian, irailaren 3an. 75 urte.
- Manolita Aldabaldetreku Portularrumo, Orion, azaroaren 13an. 66 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzank izan.

ZORIONAK

KARKARA osatzen laguntzen dutenei

Eskerrak eman nahi dizkio gu Aiako jendeari *Franco gure ordeon* artikulua prestatzeko eskaini digun laguntzagatik. Halako kolaborazioak gabe ezer gutxi lortuko genuke KARKARA herriko aldizkaria egiteko momentuan. Hurrengoan ere lagunduko digutelakoan, eskerrik denoi.

ZORIOTXARRAK

Egunkariak osten dituztenei


Eguna argitzen doanean, gau pasa egin duten batzuek ez dute beste zer egink, itxuraz, Iturain estankoko atarian dauden egunkariak noranahi botatzea balio. Ordutik horretan mezatarra bidean doazentzatzuek ere aprobatzen dute hori, egunkaria hartzeko sosisko ordaindu gabe. Norbaitek ikusi egin ditu eta badakin nortzuk diren, hemen izenak ematen ez baditugu ere.

IZUGARRIZKOA



IZUGARRIZKO KALABAZA
Juan Arrutik, 78 urte,
Aldape baserrikoak, inoiz
atera duen kalabazarik
handiena ateratzen
aurten. 90 kiloko ale
eder honekin batera,
beste asko izan ditu 50-
60 kilo inguru osoak.
Kalabazak politak dira
zelaian ikusita eta
urtero salatzen da zein
baino zein ederragoa
sortzen.

José Manuel ARRILLA



‘1909ko banderak Orioko eskudoa dauka’

1983an, Oriok Kontxa nola-bala irabazi zuen hartan, basi ziren José Manuel eta bere kuadrilla (J. A. Arriaga, J. San Sebastian, L. Gozategi, J. Miralles...) Banderen Bedenkazioa antolatzen. Banderak bildu, konpondu eta amarratzearaz gain, urte hartan gau pasa egin bebar izan zuten banderak zaintzeko. Geroztik, ez dute gau pasa egin beharrik izan, baina errelebo bebarrean daudela esan digu José Mamalek.

Aurreneko aldiz antolatu zenutenean, 1983an, plazan jarri zenituzten banderak.

126 bandera ziren ordura arte irabazitako guztiak eta la-runbatean, bezperan, jarri genituen plazan. Orduan, bi taldeek, txandatz, gau pasa egin genuen. Bandera espainiarak ziren eta izugarrizko istiluak izan genituen. Banderen bedeinkazioa festetan ospatzen zen orduan, eta kanpoko jende askok *españoles* deitzenten zigan; nahiz eta gu herak boino abertzaleagoak izan.

Bestela, Udaletxean jarri izan dituzue.

Bai. Urtekoak elizara eraman, bedeinkatu, eta gero

udaletxeko lehen pisuko balkoiak jartzen ditugu. Urte horretan Kontxako bandera irabazi bala, bigarren pisuan Kontxako bandera guztiak jartzen ditugu, eta Espainiako Txapelketa irabazi bala, hirugarrenan ordurarteko Espainiako txapelketako guztiak jartzen ditugu. Zer irabazi, hura jarri izan dugu. Hala ere, gaur egunen, denak, 319 bandera, ateratzerik ez dago.

Nola moldatzen zarete?

Bostlarunbat lehenago hasten garai lanean. Hasieran etxez etxe joaten ginen patroien banderak biltzen. Gero, banderak amarratzeko beste egun bat hartzen genuen, den-

bora asko ematen baitu horrek ere. Beste egun bat sokak jartzeko behar izaten dugu eta beste bat banderatxo horiak egiteko. Guk, egia esan, erraz jartzen ditugu banderak, esperimentzia daukagu-eta. Baina nik gustura erakutsiko nienteke gazte batzuei. Ni gazte nintzenean, 50 urteko gizonik ez baitzen ibiltzen banderak jartzen.

Nola daude banderak?

Kontxako bandera pila bat hautsita zeuden, harilduta; lotsa ematen zuen horiek ateratzea; trapu zaharrak ematen zuten. Horrela, Lontxaneko Beneditak bere burua eskaini zuen banderak konpontzeko, pena ematen ziotela-eta. Parabat bandera telaberritu zituen, baina emakume batzuek kargu hartsu eta ikaratu egin zen. Guk, ordea, urtero bi bandera konpontzen segitu genuen; Juanita Alberdi jardun zen lan horretan. Horibai, banderari eskudoa eta hitzak errespetatuz. Orain denak berri-behriak daude. Izugarrizko patrimonioa dago Orion, har-

tuko luze beste herri batetik horrelako ondarea. Inork ez bezala, 1909ko Donostia banderak Orioko herriaren esku dauka.

Jarriko al da 64ko Kontxako bandera?

Bai, noski. Beti ekarri izan dute. Klaudio Gorria bizi zela, beti ematen zigareten. Orain, aurren eman nahi duten edo ez duten, ez da gure arazoa. Guk listo daukagu gamontzeko guztia.

Eta datorren urtean zer?

Hurrengo urtetik aurrera zaila izango da udaletxeen jartzea banderak, berritu egin behar omen dute-eta. Era, gainera, egunen batean banderen kargarekin erori egingo da udaletxea. Balkoia ostegustel egina dago, makina aldiz egon naiz kezketan. Datorren urterako pentsatzen jardun gara eta zaila izango da, baina behiko kaleko etxeetako balkoietaan jarri daitezkeela uste dugu. Eskatzen duen guztiari emango litzaiotek handearen bat balkofan jartzeko.



Txistularien banda

Horra zazpikote ederra, ezkerretik eskutira: Agustín Lizaso, Martín Lizaso, José Mari Lizaso (Agustinen anaia), Juanito Abaurrea, Xanti Loidi, Manuel Larrañaga eta Tiburtzio Arostegi. Izkinetako biak eta erdi-erdikoa kenduta, gainontzeakoak bizi dira. Argazkia lehengo udaletxe zaharrenan ondoan egina da orain dela 45 bat urte.

Eskuan txistua eta soinean kaikua dutela ageri diren gazteek Luistarren txistulari-banda osatzen zuten; tronpeta dutenak, berniz, alkate soinua jotzeko elkartzen ziren bandakuekin, baina berez ez ziren bandakoak. Luistarren banda hau herriz herri ere ibili zen; baina, batez ere, Orion jotzen zuten, eta ez bakarrik festetan, ia igandero egiten zuten esna deiako kalejira. Txistulariekin dantzari-txikiak ibiltzen ziren, Luistarrek hauek ere.

Banda horretatik Lagun izeneko otxotea sortu zen, Victoria Eugenian kantatzeria ere iritsi zena;

otxote harten kantatu zuten argazkiko hiru Lizaso hiriek eta Xanti Loidik, eta baita Benito Lertxundik ere. Otxotetik, berriz, korua eratu zen. Hiruretan –bandan, otxotean eta koruan— Martín Lizaso relojeroa ibili zen; gehienbat, besteei erakusten. Elizaren saloian jarduten ziren, tzunpa-tzunpa. Berari, berriz, Martini, Santiago Azurza elizako piano jole izandakoak erakutsi omen zion. Santiago Martini erakutsitakoa erakutsiko zion honek bere seme Xabierri, hau orain piano jolea baita eta, gainera, kontzertu didaktikoak ematen jarduten da ekoletan; Oriokoetan ere ibili da.

Beraz, garbi dago, musikaren alorrean ere *izon zirela* dim eta direlako *izango dira, joioko dira berriak* eta katea ez dadila eten. Orio oso herri musikazalea izan da eta aurrerantzean ere hala beharko luke. Izan ere, kantatzen daketen herriak ez baitira sekula hiltzen.

Gora musikoak eta zorionak, azaroaren hoigaita hian zuen zaindariaren eguna da eta: santa Zezilia.

(Txistularietako batek emandako argazkia)

KONTZERTUA

- Santa Zezilia eguna dela eta, Orioko Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Orioko elizan, azaroaren 22an, arratsaldeko 6etan. Ondoren, 1999-2000 ikasturtean 1, 2, eta 3. maila bukatu zuten ikasleei agiri bana emango zaie.



LEHEN MAILDIA IMAZUEK agiria jasoko date Santa Zezilia egunean.

ZOZKETAK

- Orioko Oribale eskusoinu taldearen alde, Saria: bi lagunentzako mariskada, Txartelak salgai, chun pezetan. Zozketa azaroaren 24an, arratsaldeko 7etan.
- Orioko Futbol Taldearen alde, urtarrilaren 5ean, Loteria del Niñoko zenbaikiarekin. Saria: otar zoragarri bat, 200 pezetan, direktibakide edo jokalariengana jota.

DANBORRADA

- San Nikolas jaian, abenduaren 5ean, danborrada antolatuko da aspaldiko partez. Entsaioak azaroaren 18an hasiko dira, 16:30etan, ikastolako estalpean.

IBILALDI GIDATUA

- Aian, azaroaren 18an. Irteera goizeko 9:30etan, itzulera eguerdiko 13:30etan. Ibilbidea: Aiatik Altzuzelaiara kotxez. Oinez: Altzuzelai - Elordi - Etxeta - Ilarragorri - Granada Baseria - Ilarragori - Orendain - Zatain - Altzuzelai.

FUTBOLA

- Orion, azaroaren 19an: Erre-gionaletan, Orio-Egoibar B eta gazteen 1. mailan, Orio-Intxurre.
- Orion, azaroaren 26an, Kadeteen 2. mailan, Orio-San-pedrotarra.

FESTETAKO BILERAK

- San Nikolas festetako programa aztertu eta osatzeko bilera izango da, azaroaren 20an, astelehenan, kultur etxearen, 19:30etan.

PODOLOGOA

- Aian, azaroaren 25ean, podologia zerbitzu, Izen-ematea, udaletxearen. Tel. 943 13 11 44.

DIAPOSITIBAK SALATXON

- Poto Gorrotxategi eta Belen Eguzkizaren Txileko irudiak: Mendi eta bosquek. Azaroaren 24an, 23:00etan.

ZAINTZAKO BOTIKAK

AZARIA

- 17, 18 eta 19an, Lasa 20an, Barrenebea 21ean, Mutuozabal 22an, Azaldegi 23an, Zularka 24an, Irarite 25 eta 26an, Olazmua 27an, Uranga 28an, Azaldegi 29an, Zularka 30ean, Iriaete

AZALDEGI: Undaneto kalea, 8.

943 13 31 83 ZIAKUNTZA

BARENTEKEA: Gipuzkoako kotoa, 17. 943 63 23 98 ZIAKUNTZA

MUTUOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 ZIAKUNTZA

OLAIZOLA: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 74 ZIAKUNTZA

ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 ZIAKUNTZA

URANGA: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 79 ZIAKUNTZA

IRIARTE: Zirkunegi, Pilaritzo Enea. 943 13 29 83 ZIAKUNTZA

LASA: Herriko enparantza. 943 83 09 36 ZIAKUNTZA

BANDEREN BEDEINKAZIOA

- 10:30etan meza nagusia eta banderen bedeinkazioa, 13:00etan trainero estropada, 14:30etan baszkaria Aginagan.

MAKAZAGA Igeltseritza

- Igeltseritza orokorra, denetarik ogiten dugun.
- Presupuestoak eskaintzen konpromisorik gabeko.

Lan haukuna eta
merkeza

Telfnoa: 943 83 59 00

ALUYOLA, S.L. Fatima Aspasia

LEHIOAK, ATEAK, PERSIANAK
P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANO SISTEMA
PERFIL THERMIKOA

PRESUPUESTOAK KONPROMISORIK GABE

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
Telfnoa: 943 36 22 77

ARRALDEN
TXOTX

TEL. 943 89 01 25


**ALLIANZ-RAZ
asegurak**

Allianz **Raz**
MARIÑE ZALDUA
Asegurado agentea
Ibilbidea 10 Behereira
Tel. 943 13 47 60

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Telfnoa: 943 83 05 09



OCTOBER 94